

**SIGNOEZ GOGOETA LABURRA**

1. Filosofia naturaletik (materialismo garbitik) abiatuz gero, formalizatzen ez bada (edo formalizatzea suposiziotzat soilik hartzen bada), ez dago ezer unibertsal bihurtzerik. Baina filosofia naturalak beti aztertu du kosmos materiala signoak aintzat hartu gabe. Horregatik beti amaitzen da materialismo garbian. Zeren signoek erakusten baitigute badagoela a priori ezagutzen duenik, badagoela, beraz, ezagutza unibertsala, ezinezkoa filosofia naturalean, duenik. Eta hori, ikertzeko metodo osatugabea erabiliz, ezinezkoa da materialistarentzat, zein beti a posteriori hasten baita estudiantzen. Azken batean filosofia naturalean ez dago a priori ezagutzerik.
2. Filosofia naturalak, kosmos hau estudiantzen duena, azkenik beti amaitzen du ondorioztatzen kosmos hau igarotzea dela. Zientziak aurrera joan ahala gero eta mugimendu gehiago antzematen da (bai makrokosmosean eta baita mikrokosmosean ere), eta behin baino gehiagotan unibertsal bihurtu badira ere teoria batzuk, azkenik okerrak zuzenduz afirmazio honekin amaitzen du: dena igarotzea da, eta ez dugu afirmazio horri ezer gehiagorik eranstean, okerra baita unibertsal bihurtzea, egia-aren kontrakoa. Eta historia garbiaren modukoa da, kontatzearekin konformatzen da, teoriarik egin gabe.
3. Blues batek honela dio: “nobody nows you when you are down and out”, hau da “inork ez hau ezagutzen beheko erreka jota hagoenean”. Eta hori ezagutzen dut

nik, irakurketen erruz pixka bat abentureroa izan naizelako. Eta eskarmentu hartatik, umiliatua nagoela, iritsia naiz ondorioztatzera ezen denok dugula geure geneetan hoberenaren, onenaren eta ederrenaren aldeko halako joera argi bat. Joera aristokratikoa. Ez al da hobe a posterioriko ezagutza baino a prioristikoa?. Eta signo batek halako ezagutza a prioristikoa adierazten badu zergatik tematu izan da hainbeste mundu zientifikoa esperientzia historiko hori ez aintzat hartzen?. Eta zientzien zientzia den filosofia ere gauza bera?. Nik tematika hori nahi nuke estudiatzea pixka bat, argi eta garbi ikusi dadintzat. Edo hobe, irakurleei uzten diet arazo horren zergatien estudiatzea.

*Roman Garmendia.*